

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresa arrakasta izan dezan, garrantzitsua da bezeroekin harremanetan nola jarriko garen definitzea. Gure enpresaren kasuan, bezeroak gure produktua [webgune](#) batean izango dute eskuragarri, bertan produktuaren ezaugarrien deskribapen sakona izango dute eta produktuaren eskaera egiteko aukera izango dute, hau da, prezioarekin lotutako informazio guztia bertan adierazita egongo da eta likido garbitzaile gehiago behar izatekotan, webgunean egongo da likidoaren ezaugarrien eta prezioen informazioa.

Horrez gain, gure bezeroekin harreman pertsonala izatea nahi dugunez, gure enpresako langileak produktua instituzioan bertan muntatzeko aukera emango dugu eta horrez gain, produktua apurtuz edo arazoak emanez gero gure langileak bertara gerturatu eta apurtutakoa konponduko dute. Azken honen salneurria, behar denean adostuko da aurrekontu bat eginez. Honi buruzko informazio guztia webgunean adierazita egongo da, bezero guztiak honen aukeraren berri izateko.

Bezeroak edozein zalantza edo arazo izanez gero, gurekin harremanetan jarri ahal izango dira webgunean eskuragarri duten telefono zenbaki edo helbide elektronikoaren bidez eta telefonoz zalantzak argitzea zaila izanez gero, gure **bulegora** gerturatzeko aukera izango dute zalantzak errezago argitzeko aukera izan dezaten. Honi esker, gure bezeroak mantentzea eta haztea espero dugu gure enpresa aurrera egin ahal izateko.

Bestalde, Instagramen kontu bat sortuko dugu bezero berriak erakar ahal izateko eta gure enpresaren izena eta produktua ezagutzera eramateko. Bertan, produktuaren argazkiak, funtzionamendua azaltzen duten bideoak eta prezio edo beherapenen informazioa txertatuko ditugu.